

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresa batek, bere produkzioa aurrera eramateko, kanpotik jasotako laguntza du beharrezkoa. Negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko, baliabideak eskuratzeko, garraiorako... Horretarako interesgarria da itunak egitea, enpresaren biziraupena ziurtatzeko.

Gure enpresaren ideiekin bat datozen elkarte, pertsona edo beste enpresak bilatzea izan da gure asmoa, gure helburuak betetzen lagunduko gaituztenak. Horretarako, enpresaren produkzioan parte hartzen duten faktoreak identifikatu genituen: garraioa, lehengaien (arropa hutsaren) eskuraketa, lurralde azpigaratuetako gobernu kanpoko elkarteak... Esparru guzti hauen jarraipena ziurtatuta, enpresari askoz ere erosoagoa eta seguruagoa izango zaio etekinak lortzen jarraitzea.

1. Garraioa: Gure elkarte den bezalako edozein enpresarentzako, garraioa ezinbestekoa da. Lehengaiak gure dendetara eramateko; behin produktua eginda dagoenean, bezeroei banatzeko; lurralde azpigaratuetara bidaiatzeko, bertan gure ikus-entzunezkoak filmatzeko; kolaborazioak egiteko materiala herrialde azpigaratuetara eramateko... Beraz, bai Euskal Herri mailan, bai Espainiako estatu mailan eta bai maila internazionalen garraio enpresa batekin itunak egitea nahitaezkoa da.

Hainbat web orritan bilatu ondoren, prezioak konparatuz, bezeroen interneteko iruzkinak kontuan hartuta eta enpresaren kokalekua presente izanez, San Jose Lopez S.A. garraio enpresa izan da hautatua. Beraiekin harremanetan jarri gara, eta Euskal Herri mailan garraioa ziurtatuko digun hitzarmen batera iritsi gara. Akordio honek suposatzen duen galera ekonomikoa argi izan behar dugu kostuan planifikatzerakoan eta aurrekontuak egiterakoan.









Espainia mailan garraio bideak izateko ere internetera jo dugu. Hemen ere, kostuak konparatuz, bezeroen iritzia irakurriz eta balorazio arrazional bat egin ondoren, Norbert Dentressangl Gerposa S.L. konpainiarekin jarri gara harremanetan. Akordio batera iritsi gara, beraz Espainia mailako garraioa jada ez da eragozpenik gure enpresarentzako.

Azkenik, mundu mailako garraio metodoa aukeratzerakoan, gure lehenengo erabakia izan da Amazon bezalako multinazionalen ez harremantzea, izan ere, beraien politikak ez datoz bat gurearekin. "Cacesa Air Express" enpresarekin egin dugu aurrera, eta negoziatio luze baten ondoren garraio nazioarteko garraioa lortu dugu. Hurbileko herrialdeetara (Portugal, Frantzia, Andorra, Erresuma Batua, Italia, Suitza, Herbehereak, Alemania eta Belgika) garraioa kamioien bitartezkoa izango da, gainontzeko herrialdeetara airez. Gainera, erabaki dugu, herrialde azpigaratuetara bidaiatzeko ez dugula itunik sinatuko.

2. Herrialde azpigaratuetan elkarlanean: Taula bat osatu dugu gure helburuekin eta helburuak betetzen lagunduko diguten elkarteekin:



**hauek dira landuko ditugun herrialde azpigaratuak eta bertako erakundeak*

| | | |
|-------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|-------------------------------------------|
|  | Brasil | SOS Fundo Amazônia |
|  | Burkina Faso | Alblamoving |
|  | Mozambique | CC GKE |
|  | Indonesia | Samboja Lestari Orangutan Sanctuary |
|  | Nepal | Kathmandu environmental education project |
|  | Senegal | Edukaolack |
|  | Kenia | Asociación Índigo |
|  | Marruekos | Asociación Elbassma |

3. Lehen gaiak: Azkenik gure produktuak ekoizteko beharrezko gaiak lortzea da gure helburua. Horretarako, bilaketa nekagarri baten ondoren, MONARCH CORK enpresarekin topatu gara. Enpresa turkiar honi eskera, lehengai ekologikoekin egindako arropa hutsa eskuratuko dugu. Horrela, fast fashion bezalako fenomeno kaltegarriari aurre egin diezaiokegu, ingurunea errespetatzen duen enpresa eraikiz. Turkiatik hona, eraldatuko ditugun produktuak hegazkinez ekarriko ditugu, lehenago aipatutako "Cacesa Air Express" erakundearen laguntzarekin.

Garrantzitsua da jakitea, hasieran ez daukagunez diru kantitate handirik, Durangoko enpresa lokal batekin izango gara elkarlanean: BORMAN. Hauek, lehengaiak emango dizkigute tenporalki. Kalkulu batzuk egin ostean, 2 urteko ituna sinatzea erabaki dugu. Garraioarekin ere berdina gertatzen da, hasiera batean gure produktuak Euskal Herri mailan banatuko ditugu, lehenago aipatutako enpresarekin. Ondoren, diru sarrera nahikoak izanda, gure produkzioa zabaltzea izango da hurrengo pausua.